

ASTEKARIA: 21. atala

DATA: 2024/11/15

## GUREAN

### AUPA REALA!

Reale Arena barrutik ezagutzea amets bat izan daiteke ume askorentzat... Horrelaxe ibili dira aste honetan gure LHko 5.mailako ikasleak, ametsetan. Zelaira gerturatu dira eta hango instalazioak bisitatu dituzte, Realaren historiari eta balioei buruzko bideo bat ikusi dute eta, ondoren, jolas batzuk egin dituzte. Goiz ahaztezina izan da beraientzat.

"Amets Bat kirol", heziketa eta aisia jarduera bat izan da. Reale Arenan bukatu ondoren, Aquariuma ere bisitatu dute. Urtero egiten dugun ekintza bat da... Datorren urtean, berriro ikusiko dugu elkar, Real!



## GURE INGURUAN

### OLENTZERO ETA MARI DOMINGI MIRANDAOLAN

**NON: LEGAZPI**  
**NOIZ: AZAROA ETA ABENDUA**



Urteak dira jada, Lenbur Fundazioan Legazpiko Mirandaola burdinolan Olentzero eta Mari Domingiren etorreraren inguruko familientzat bereziki sortutako tailerra antolatzen hasi ginela.

Aurtengoan, azaroak 2an hasiko gara eta abenduak 23ra arte izango dira saioak.

Dagoeneko sarrerak online jarri ditugu lenbur.com Webgunean, 8,75 euroko prezioan.

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 943730428 telefonora edota webgunea kontsultatu: [www.lenbur.com](http://www.lenbur.com).

### AMUA FESTIBALA- HONDARRIBIKO MUSIKA FILM LABURREN ZINEMALDIA

**NON: HONDARRIBIA**  
**NOIZ: AZAROAK 14-16**

Amua zuzeneko musika da. Biniloen azoka. Film labur musikalen jaialdia. Zuzeneko irratsaioak. Urtean zehar, musikazaleak Itsas Etxea Auditoriumeko agertokian biltzen dituen hainbat musika proposamenen batura da Amua.

Ibilbide laburrean, Amuak erreferente kulturala izatea lortu du eta ekimen hori babesten jarraituko dugu egin behar duen bidean.

